

noaua



**Etorkizuneko
Santuenea eta Zubieta
gauzatze bidean dira**

**Igande honetan
haurrentzako filma
Sutegin**



**Usurbil 1936 elkarteak
eta Udalak hiru urterako
lankidetzaz hitzarmena
sinatu dute**

6. or.

KAFE GARAIA

Joxe Mari Izeta: "Jende ona,
anitz eta interesgarria
ezagutu dut GuraSOsen"



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

www.funerariagonzalez.es

GOLDWELL
ELUMEN

Ondo pasa
Santixabeletan!

*i
l
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*



Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

noaqa

jarraitu gure sare sozialak



www.noaqa.eus

Albisteak iruditan

Aginagatik barrena iritsi zen guregana

Abenduaren 23an iritsi zen Olentzero Aginagara eta harrera beroa egin zioten gaztetxoek. Ikazkina arratsaldeko 18:00ak pasata agertu zen Sekañako bidegurutzera, eta ordurako lagun asko zituen zain. Trikitixa eta pandero doinuz lagunduta, haur eta gaztetxoek Eliza Zaharreraino lagundu zioten Olentzerori.

Olentzero astoa eta laguntzaileekin agertu zen, eta musikarekin hartu zuten aginagarrek. Behin Eliza Zaharrera jaitzita, gutunak eman zizkieten Olentzerori eta Gabon hauetarako zer nahi zuten azaldu zieten. Zertxobait jateko aukera izan zuten gerturatutakoek.



Ikazkina 18:00ak pasata agertu zen Sekañako bidegurutzera, eta ordurako lagun asko zituen zain.

Laburrean

3.000tik gorako intzidentzia

Hilabete hasieratik 336 kasu abenduaren 29ra arte eta 3265,94raino igotako koronabirusaren intzidentziarekin agurtu genuen urtea Usurbilen. Egun bakar bateko agerraldi berrien kopuruan markak hautsiz, goia jo ezinik.

Aldaketak erregeen kalejiran

Urtarrilaren 5ean arratsaldeko 17:00etan hasiko da errege magoen kalejira. Bizi dugun osasun krisialdiagatik, amaierako ekitaldirik ez da ospatuko Usurbilgo frontoian. Gutunak jasotzeko ekitaldia ere bertan behera utzi dute.

Egutegi gehiago NOAUA!n

Bat baino gehiago etorri zarete galdezka. Baditugu oraindik abuztu hasieran zendu zen Gregorio Arbeloa Irigoyen margolaria omentzen duen 2022ko egutegi gehiago NOAUA! Kultur Elkar-tearen egoitzan.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoria:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre

Proposamen buletina

Hitz segidak antigeno testak ogia txokolatea inertziak narama zoriontsu sentitzera edo bere okerreanean triste orain hobeto boladak dira hego haizearenak ekarri al dudan hau hori hura supermerkatuak hutsik direnean bihar bihar bihar atzo izango da gaur delakoan eta txio batek bizitza konponduko dio inori

GERRA GERRA GERRA diote egunkari saltzaileek marketing kanpaina berrian eta Hertzainak erantzun gerrara ohitu zintezke baina gerra egon badago

Paperezko zorroan daramat merkantzia estraperlokoa daitekeen susmoak zurrumurrak bilakatu dira istant batean arrunta da paperezko zorroan gordeta legez-kanpoko merkantzia eramatea ezkuko esaldiak bezain arrunta

Bihotzak dituen txoko ospeletan jardin bat zuretzat goroldioa ere apenas ailegatzen da hilabete amaierara alabaina saio enpatikoenean oxigenoa sortzen du eta eskerrik ez trukean

Banu baneza banitzaio badoanez noa baboa harrigarriki errepidean aurrera atzean geratutako bidegurutze bako-



“Notiziak konstantziak eta inkoherentziak promesa dituzu goxoki formetan umeei jaurtitzeko”. Argazkia: Roman Kraft.

UGAITZ AGIRRE

“Etorriko dira egunak zaharrak zahar-zaharrak zaharragoak botila hutsetan gatibu izanda zoriontsuak”

tza simulatuz aukera posibleen inbentarioan

Etorriko dira egunak zaharrak zahar-zaharrak zaharragoak botila hutsetan gatibu izanda zoriontsuak

All I can hear I me mine I me mine I me mine even those tears I me mine I me mine I me mine all to your life I me mine

Notiziak konstantziak eta inkoherentziak promesa dituzu goxoki formetan umeei jaurtitzeko

Salgai Ford T beltza bilauseizazpizerobathirubilauhemeretzihogeiatahamazazpibizeroehunetabost kilometro eta forma onean prezioa eztabaidagarria

Banu baneza baboa umezurtz zuri-beltzeko bidegurutzeen epizentroan lurrikarak atzerapenarekin iritsi ohi izan dira beti eta aitzakiak tarteko inoiz ez du inork motiborik topatu salaketa egiteko denborak ezabatu baititu uestzko krimenaren ebidentzia guztiak

DADADADABADADADADADADADADADADABADABADA

Pentsamenduak irakurtzen dizkiezu ostein saltzeko gezurra bailitzan egia eta galdetzen didazu zertan naizen indartsu jakiteko noiz egonen naizen

ahuleziak jota

Zure desleialtasunak airos kontatzen dizkidazu gela itxietan mitologia ezberdinetan sinesten baituzu uhartedi honetan onak eta txarrak pintzelkada ñimiñoengatik ezberdintzen dira heroiak bidelapurrengatik aldatu genituenetik

Zurrumurrak eta txutxu mutxuak mugitzen du morbosoa irudimenaren fruitu den paisaia hipotetikoetara txotxongilo-antzerki ikusle bakarra bera izaki berunezko soldadutxoekin gerrak irabazten dituen jenerala nola bai baitaki inork ezingo diola kendu besteak torturatzeko fetitxea

Irakurtzeko beharizana ez duten iragarki sorta pare datoz berriak gaurko buletinean atzokoen pare edo agian berdina dira eta zuk ez diezu zentzurik hartzen egunen joan-etorriari nahiz eta dirudien pertsianak igotzea eta jaistea ariketa errutinarioa besterik ez dela ohituraren ohituraz naturaltasun kuestiona ezin bateraino iritsiz jakinik ere fantasetan soilik behar lukeela horrela eta kalekoa pantomima hutsa dela

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaUA.eu

ARRANDEGIA
PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Sareren manifestazioa larunbatean

Bigarren urtez segidan Sarek “atsekabe handiz” baina osasun krisialdiak behartuta urtarrilaren 8rako “Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako. Bidean” aldarripean Bilbon deitua zuten mobilizazioa bertan behera uztea erabaki dute.

Bilboko deialdia bertan behera utzita “hala ere, ez dugu baztertu nahi Bilboko kaleetan milaka eta milaka lagunak plazaratu genuen aldarrikapena”, batetik, “data hau ikur bat delako euskal presoek eskubideen aldeko aldarrikapenaren barruan. Bestetik, nahiz eta azken urte hau garrantzitsua izan espetxe-politikan hainbeste espero genuen aldaketari dagokionez, euskal preso gehienak Euskal Herritik



Usurbilgo Sarek iragarri duenez, larunbat honetan arratsaldeko 17:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko da manifestazioa.

SARE

“Urtarrilaren 8an gure herrietan elkartuko gara, 17:00etan”

kanpoko espetxeetan daudelako oraindik, eta gradu-progresioa blokeatuta dagoelako, eta, ondorioz, presoek ezin dutelako egin etxera itzultzeko

prozesua. Eta, azkenik, pandemia honek eragin zuzena duelako presoengan eta haien senideengan. Berrito ere zailtasunak daude zenbait espetxeetan bisitak egiteko, bereziki aurrez aurrekoak”.

Bilbon beharrean, Usurbilen

Horregatik, iragan urtarrilean bezala, bigarren urtez segidan,

mobilizazioak deitu dituzte Euskal Herriko herri eta hiri-buruetan. “Urtarrilaren 8an gure herrietan elkartuko gara, 17:00etan. Ordu horretan, ehunka mobilizazio egingo dira aldi berean, milaka pertsonaren parte-hartzearekin, betiere behar diren segurtasun-neurri guztiak beteta”.

Usurbilgo Sarek deialdiarekin bat egin eta larunbat arratsaldeko 17:00etan Mikel Laboa plazatik abiatu eta bertan amaituko den manifestazioa iragarri du. “Urtarrilaren 8 honetan inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu aldarrikapena bizirik mantentzea eta Euskal Herriko herri guztietako kaleak betetzea bidea egiten jarraitzeko: bizikidetzarako bidea, bakerako bidea, etxerako bidea”.

Ika-mika

Orbeldiko presak, herri eztabaida eskatzen du

Troia eta ibaiaren artean garai batean egon zen Arretxea baserriraino iristen omen zen marea Orbeldiko presa eraiki baino lehen. Arretxea baserria eraitsi egin zuten 1913an trenbidea eta errepedea eraiki zirenean.

Oria ibaiak, Orbeldi eta Zumartegiko industrigunearen artean, oztopo-dentsitate handia dauka. Lau oztopo hain zuzen: Orbeldiko presa, Zorrotza zubia, garai batean Errotaberrira ura bideratzen zuten presa eta trenzubia. Bi presek ez daukate inongo erabilpenik egun. Beraz, eraistek mesede baino ez lioke egingo ibaiari.

Garbi dago, uholdeek kalteak eragiten dituztela. Beti ere, ibaien arroetan dauden eraikuntza eta landaketetan. Alegia, eraiki behar ez genuen lekuetan eraikitzearen ondorioak ari gara sufritzen neurri handi batean. Hori gertatzen da gure herriko erriberetan zenbait

kasutan. Kalte horiek are eta larriagoak dira, uraren pasabidea gelditzeko espreski ibaiaren ibilguan bertan presak egin diren zenbait kasuetan. Orbeldiko presak, Oria ibaiaren naturalizazioa eta biodibertsitatearen berreskurapena tratatzeaz gain, erriberako uholdeak areagotzen dituela konturatzeko, nahikoa da halakoetan argitaratzen diren argazki erreportaiak eta bideoetan erreparatzea. Urak, Aliriko zubia igaro eta laster, Txara baserriaren parean, esku-bira ateratzen dira eta erribera lasterbide bat bilakatzen da berrito Zorrotza zubiaren ondoan ibairatzeko.

Orbeldiko presa eraistek, uholde kasuan, traba kentzeaz gain, presaren kontra pilatutako lohiak ez egotea eragingo luke, eta bide batez, ibaiaren ibilguak ur emari handiagoa hartzeko aukera izango luke, ura pasatzeko abiadura ere bizkortuz. 2016an Orbeldi inguruaren leheneratzeko proposamena

jasotzen duen “Oria Ibaiaren Paisaiarako Ekintza Plana” onartu zuen Usurbilgo udalak, eta hor, leheneratzeko neurri bezala argi eta garbi jasota dago, presa eraitsi behar dela. Ekolur enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako “Gipuzkoako oztopoak iragazkortzeko plan gidaria 2020” txostenean jasotzen da Orbeldiko presa dela Oria ibaiaren lehen oztopoa, eta txosten horretan ere presa eraisteko egitasmoa planteatzen da.

Teknologiak dena konpon dezakeela uste dugun arren, naturak hitz egiten duenean, ohartzen gara hori ez dela erabateko egia. Jasanezina dena, ez baitu teknologiak jasangarri bilakatzen. Uholdeak dira horren adibide garbi bat. Klima aldaketa gertatzen ari da, eta, uholdeen fenomenoak gero eta sarriago izango direla, jada, auzitan jartzen ez den ebidentzia bat da. Hori bakarrik ez, gero eta kalte handiagoak

eragingo dituztela ere, sarritan entzuten dugu zientzialarien ahotan.

Gauzak ez daude ongi, baina dena ez dago erabat galduta. Alkateak, bere dekretu bidez, Orbeldiko ur bizkorren kanalaren planari hasierako onespina eman arren, gai honen eztabaida herriratu beharra dago, udal bulegoetako ezkutalekutik atera behar da. Egia bada, sarritan udal bozgorailuetatik aldarrikatzen den bezala, zientzialarien iritzia kasu egin behar zaiola, kasu honetan ere, horrela jokatzeko espero dugu. Horretarako, ibaien inguruko jakintza du(t)en, zientzialariek landutako txosten independente bat egitea proposatzen dugu Orbeldiko presaren eraginari buruz. Beti ere, Oria ibaiaren natur kontserbazioa eta biodibertsitatearen berreskurapena lehenetsiz, hori baita benetako interes orokorra.

Anerreka Ingurumen Elkarteak

Joxe Mari Izeta: “Gizakia Helburu egoitzako ateak ahal bezain pronto zabaldu genituen”

Joxe Mari Izeta Martiartu psikologoa da ogibidez, baina gehienok GuraSOSe-kin lotzen dugu bere jarduna. Gizakia Helburu elkartearen aritzen da lanean. “Arazo mentalak edo buru-arazoak dituztenak artatzen ditugu eta, aldi berean, drogarekin edo alkoholarekin arazoak dituztenak ere bai”.

NOAUA!ren 25. urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Ezer baino lehen: non zeunden dela 25 urte?

Joxe Mari Izeta: Bete berriak ditut 30 urte lanean hasi nintzena Gizaki Helburu-n, *Proyecto Hombren*. Hortxe nabilen. Psikologia arloan ikasitakoak praktikan jartzen, menpekotasunekin harremanetan.

Garai zailak gogoratzen ditut. Gazte asko etortzen zen guregana. Drogak uzteko borroka horretan zebiltzan baina askok HIESa zuten aldi berean. Ezagutu genituen gurekin egon eta gero nahiko modu txukunean bizitzea lortu zutenak. Baina HIESak jota hilko zen jendea ere ezagutu genuen. Garai gogorak izan ziren orain dela 25 urtekoak, bai.



“Gure martxara egokitzen ez diren horiengana guk egokitu beharko dugu. Halaxe sortu zen Eraiki, Gizakia Helburu elkartearen baitan dagoen proiektua”. Joxe Mari Izeta buru-osasun arazoak dituztenekin aritzen da lanean.

JOXE MARI IZETA

“Duela 25 urte, gazte asko guregana etortzen zen (Gizakia Helburu elkartera). Drogak uzteko borroka horretan zebiltzan, baina askok HIESa zuten aldi berean. Garai gogorak izan ziren”

Drogomenpekotasunarekin lotzen genuen Gizakia Helburu

taldearen jardura baina buru-osasun arazoak dituzten pertsonak ere artatzen dituzue. Gaur egun, zeintzuk dira Gizakia Helburu elkartearen lan ildo nagusiak?

Arazo mentalak edo buru-arazoak dituztenak artatzen ditugu eta, aldi berean, drogarekin edo alkoholarekin arazoak dituztenak ere bai.

2008. urtearen bueltan, “patologia dualak” deitzen zitzaizkien jarri ziren modan edo

boladan. Konturatu ginen bazela jende talde bat guregana iristen zena, baina gero hankaz gora jartzen zuten dena. Presioa aguantatzen ez zutelako edo, azkenean proiektua utzi beharra izaten zutenak. Egoera horren aurrean, ondorio honetara iritsi ginen: guregana egokitzen ez diren horiengana guk egokitu beharko dugu. Halaxe sortu zen Eraiki, Gizakia Helburu-ren baitan dagoen proiektua. Hor nabil ni buru belarri.

“Abandonua eta bakardadea ekiditea zen gure asmoa”

NOAUA! Buru-osasun arazoak dituztenekin aritzen zara lanean. Pandemia garaian, areagotu egin dira tankera honetako arazoak ala denborarekin azaleraziko al dira?

Joxe Mari Izeta: Nik gehiegi ez dakit horri buruz. Guri dagokigunez, saiakera indartsu bat egin genuen

atentzioa beste modu batzuetan ziurtatzeko. Bideoz eta telefonoz lan asko egin genuen. Gure asmoa zen hauek pairatzen duten abandonua eta bakardadea ekiditea nolabait. Askok sufritzen dute eta nolabait ekidin behar genuen. Ahal bezain pronto zabaldu genituen ateak eta aurrez aurreko atentzioa ematen hasi ginen.

Guk familia talde handiekin egiten dugu lan, metodologia berezi batekin. Horiek ezin izan genituen modu horretan egin, baina talde txikiagotan egin genituen.

Nik beti esaten dut gurekin daudenek konfinamendua ezagutu dutela lehendik ere. Bakardadean eta etxe inguruan egoten dira. Askok

harreman sozial nahiko po-break dituzte. Norbanako gisa akaso ez dute gehiegi atzeman; gizarte gehiago igarri da agian. Beste kolektibo batzuetan eta beraien osasun mentala harremanetan kudeatu duen jendeak. Horiek akaso gehiago atzeman dute besteekin harremanetan egotearen falta.

“Jende ona, anitza eta interesgarria ezagutu dut GuraSOSen”

NOAUA! GuraSOSen bozemaileetako bat zara. Horrek ere denbora bat kenduko dizu. Noiz eta zergatik eman zenuen GuraSOSen parte-hartzeko urratsa?

Joxe Mari Izeta: Kasualitatez izan zen. Txalaka frutategian harrapatu ninduten. Oronan saio bat egin behar zutela aipatu zidaten eta norbait behar zutela. Itxura ona hartu nion. Erraustegiaren gaia eta ekologia uztartu behar zituztela; eta saio baterako egingarria iruditu zitzaidan. Joan nintzen eta bat-tak bestea ekarri zuen.

Gaur egun oso interesgarria den kontu batean sartu nintzen, baina kasualitatez izan zen. Nik zeregin ugari ditut bestela ere, eta gainera -hau ez dut askotan esaten-bilerak ez ditut batera maite. Zergatik? Lantokian bilera asko egiten ditugulako. Nire lanetik aparte bilatzen dut baratzean aritzea, nire txapuzak egitea, mendira joatea... Beste zerbait.

Gainontzean esperientzia ona izaten ari da. Bestela inoiz tratatuko ez nuen jendearekin tratatzeko aukera dut. Oso jende ona eta oso jende anitza eta interesgarria ezagutzeko aukera izan dut.

Establishment edo botere fakti-



Hainbat instituzioetan “ikaragarritzko horma” sumatu dutela aitortu digu Joxe Mari Izetak.

JOXE MARI IZETA

“GuraSOSen oso anitzak izaten saiatu gara, gizartea oso modu zabalean ordezkatzeko. Zenbait lekutara ate joka iristen zarenean ordea, atea ez da atea, horma bat da”

koen ahalmena handia da. Instituzio gehienak alde izateaz gain, bozgorailu ugari dituzte eskura. GuraSOS eta euskal instituzioen arteko sokatira, David eta Goliathen arteko borrokaren parekoa dela esan al daiteke?

Aurretik, maila teorikoan, jakin nezakeen edo uler nezakeen

zein zaila den hain errotuta eta antolatuta dauden oinarri batzuetan aldaketak eragitea. GuraSOSen ordea, zuzenean bizi izan dut hori dena, eta oilo ipurdia jartzeko modukoa da noraino zaildu dezaketen elkarrizketa bera ere.

Guk beti erabili dugun mantra edo leloa hau izan da: elkarrizketa eta elkarlana. Elkarrekin zerbaitera iristea. Bada inoiz ez zaigu Foru Aldundian ez beste inon hitz egiteko inolako aukerarik eman. Ikaragarritzko horma sumatu dugu. Gainera gertatzen dena da beraiek maneiatzen dituztela medioak eta beste hainbat gauza.

Ekologismoaren gaian, badirudi denak direla oso ekologistak, baina azken batean oso

apainduta dago dena. Mezu horrekin azaltzen dira telebistan, gobernuan daudenak-eta, baina ate joka joaten bazara beste maila batean beste zerbaiten atzetik -eta beste zerbait hori askotan elkarrizketa da, elkarrekin akordio batera iristea- ate hori ez da atea, horma bat da.

Oso anitzak izaten saiatu gara, gizartea oso modu zabalean ordezkatzeko. Baina zenbait lekutara iritsi garenean, atea horma bat izan da.

Foru Aldundiko agintariekin batu al zarete inoiz?

Foru Aldundikoez hitzordu bat jarri ziguten behin. Lanetik ihes egin nuen propio. Eguerdia zen, kotxean sartu eta bilera abiatzean nintzela Joseba Belaustegiren deia jaso nuen: “arazo pertsonalengatik gaur ezin dute baina jarriko dira berriro gurekin harremanetan”. Gaur arte. Oso adierazgarria da, ezta?

Uste dut beraiek oso garbi dauzkatela gauza batzuk. Eta beraiek garbi daukaten horren barruan agian sar zaitezke, baina zuk beste zerbait ezberdina planteatzen baduzu, edo herritar modura nahi baldin baduzu beste aukera bat planteatu, ezinezkoa da. Baina ezinezkoa letra larriekin.

“Herriko beharrak eta nahiak jasotzea lortu duzue”

NOAUA! 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Joxe Mari Izeta: Egia esateko, ez naiz herrian gehiegi ibiltzen, baina ez dut inoiz inor NOAUA!z gaizki hitz egiten entzun. Uste dut gure mo-

duko herri batean jendeak horrela onartu izanak asko esan nahi duela.

Lehenik eta behin zoriondu egin nahi zaituztet. Herriko beharrak eta nahiak jasotzea lortu duzue, eta hori ez da lan erraza.

Aitortu behar dut askotan

oso zeharka irakurtzen dudala aldizkaria. Gainestimulaturata gaude eta etxera iristen zaizkigu hainbeste paper eta hainbeste gauza... Begiratzen ditut argazkiak-eta... Baina beti sumatzen dut zerbait intereseko. Oso lagungarri zait, herriko gazuzak ekartzen dizki-

dalako etxeraino eta, zentzu horretan, asko estimatzen dut.

Kostatzen zait lan hori egitea, zer duen faltan edo zer duen soberan esatea. Nik pertsonalki, behintzat, oso gustukoa dut eta bejondeizuela.

Etorkizuneko Santuenea gauzatze bidean da

Etorkizuneko auzoa elkarlanean santuenearen artean eraikitzeko bidea fase berri batean sartzerako da. Hilabeteotan diagnosi modukoa diseinatu dute, talde eragile batek bultzatutako parte hartze prozesuaren baitan; bizilagunek osatu duten galde-egiekin edota berriki Santueneak dituen behar, gabezia eta aukerak behatzeko egindako txangoaren bidez.



Abenduaren 16ko saioan lehentasunak finkatzeko aukera izan zuten bizilagunek.

Abenduaren 16an egin zuten saioan lehentasunak finkatzeko aukera izan zuten bizilagunek. 2022an orain arteko parte hartze prozesuan planteatu diren sei egitasmo ezberdinei heltzeko aukeraz aritu ziren: auzoko plazen berrantolaketa, auzoaren irisgarritasun plana, eskuhartze zehatzak, frontoiko lokalaren erabilera, komunitate energetikoak eta auzo koordinazioaren definizioa. Hortxe aukeran zituztenak. Batzar

LEHENTASUNAK

Auzotarrek aukeratutako egitasmoak 2022an zehar landuko dira

hartara joandakoek aukeron artean, parte hartzaile bakoitzak norberarentzat lehentasunak izan zitezkeen hiru hautatu zituen.

Babes gehien izan zuen proposamena auzo koordina-

zioaren proposamena izan zen, auzo elkarte bat sortzearena. Auzoko plazen lanketari heltzeko aukera izan zen bigarren bozkatuena. Eta babes handiena izan zuen hirugarren egitasmoa, komunitate energetikoen gaiari heltzea.

Hobetzekoak bai, baina bizilekuarekin gustura

Udazken honetan zehar Santueneako bizilagunek osatutako galdetegien emaitzak ere

ahotan hartu zituzten urte amaierako saioan. Auzoak zer hobetu izan arren, bizi-kalitate ona dagoela nabarmentzen dute bizilagunek. Hobetzekoan artean, lehentasunetat jotzen dute Santueneak dituen mugikortasun arazoak konpontzea. Mugikortasun hobea ere galdegiten dute, bidegorria, oinezkoen ibilbideak, ibilgailuentzako aparkaleku gehiago, autobus markesina hobetzea. Auzotar gisa, euren kabuz egin ditzaketen egitasmoak ere aipatu dira prozesu honetan zehar; haur eta gazteak auzo giroan hezteko aisialdi eskaintza sustatzea, euskalduntzea eta auzo antolakuntza bideratzea. Santueneak duen komertzioari eustea eta energia berriztagarrien bultzada ere aipagaien artean izan dituzte, haur eta helduen zaintzarako egitasmoekin batera. 2022an zehar ten eta lantzen joango dira egitasmoak.

Kalezarko adinekoen auzunearen eraikigarritasuna handituko dute

Kalezarren Matia Usurbilgo udalarekin elkarlanean eraikitzen ari den adinekoen auzunearen eraikigarritasuna handitzea hasieraz eta aho batez onartu zuen udalbatzak abenduaren 23an egin zuten osoko bilkuran. Alegazioak aurkezteko hilabeteko epea zabalduko dute laster.

Zaintzaile eta zainduentzat etxebizitzak

Alkateak urte amaierako udalbatzarrean gogorarazi zuen bai Udalak eta Matiak duten konpromisoa; “zaintza ekosistema berri bat eraikitzekoa” hain zuzen. Testuinguru horretan eragile eta norbanakoekin batera abian den eredu horren inguruko hausnarketarako parte hartze prozesua ekarri zuen



Eraikigarritasuna 1.700 metro koadrotan handituko da.

gogora. Hortik “ateratzen ari diren zaintzarako eta eredu eta zerbitzu berriak”. Tartean “bizikidetzaren unitateetan pentsaturiko bizi osorako etxebizitzak” eraikitzeko aukera egon zitekeela ere planteatu da, zaintza beharrean izan eta zaintzen ari direnentzat hain zuzen. Zaindua eta zaintzaile

batera bizitzera joateko aukera emango luketen bizilekuak, Kalezarreko adinekoen auzune berri horretan kokatuta egonik, “zentroko zerbitzuak baliatzeko” aukera eskainiko luketena gainera.

Etxebizitza hauek kokatu ahal izateko ordea, lur eremu horren eraikigarritasuna handi-

tu beharra dago. Azken udalbatzar honetan hartutako erabakiak bide berri bat zabaltzen du, eraikigarritasuna 1.700 metro koadrotan handitzeko. “6 etxebizitza eraikitzeko aukera egongo litzateke espazio horretan”, alkateak azaldu zuenez. Udalak Matiarekin izandako hartuemanei esker; sei etxebizitza hauetatik “bitan usurbildarrei lehentasuna emango zaie”, usurbildarren artean bizilekuon beharrik egongo balitz.

Aretoa eta aparkalekua

Eraikigarritasuna handitzeak aukera emango du baita erabilera anitzeko 226 metro koadroko areto bat altxatzeko, baita erabilera publikoko zortzi aparkaleku plaza sortzeko ere.

Aginagarren gogoan bizirik

Zendu zenetik bost urte bete dira baina gogoan bizirik du Aginagako herriak. Eta hala izaten segitzea nahi dute. “Oroitu dezagun Alejandro gure artean balego moduan”, zioten abenduaren 26an Aginagako Eliza Zaharrean bertako Jai Batzordeko kideek. 2016an zendutako Alejandro Tapia Aiestaran margolari aginagarra oroitu nahi izan zuten, hil zeneko bosgarren urtemugan.



Alejandro Tapia margolariaren omenezko murala ipini dute Aginagan.

Bere irudiak proiektatu zituzten, Ane Azkonobietak eta Mikel Alkortak trikiti doinuez girotu zuten oroimen ekitaldia. Izatez, omenaldia Tapia bera bizi zela egin baitzioten. “Artista asko agurtu ostean famatzen direla esaten da baina uste dugu Aginagako semea zenak gure artean zenean, bere ibilbidean zehar herriari eman zion horren fruituak jaso zituela”. Eta abenduaren 26ko hitzorduaren bidez, “egungo Aginagako Jai

JAI BATZORDEA
“Zorionez, guk ere Aginagarekiko pasio eta jakintza hori partekatu eta jaso genuen, eta pozik gaude horregatik”

Batzordeko kideok urte luze hauetan eskaini ziguna gogora ekarri nahi genuen ekitaldi xume honekin”.

“Bere aletxoa jarri zion herriari”

Bizi zela Aginagako herriari eginiko ekarpena goraiatu nahi izan zuten. “Badakigu gutako asko baino lehenago hasi zela Alejandro bera Aginagako festa giroan eta egunerokotasunean ekarpenak egiten, inork eskatu gabe gainera. Bere aletxoa jarri zion herriari eta horren adierazgarri zen bere konpromisoa”. Hark utzitakoari helduta pozik agertu ziren Agi-

nagako gazteak. “Zorionez guk ere bere pasio eta jakintza hori partekatu eta jaso genuen, eta pozik gaude horregatik”.

Alejandrorengandik berritu bai baina iraganari izkin egin gabe, “lehen zenari ere merezitako lekua eman behar zaiola” jaso zutela zioten, auzolanean elkarrekin jorraturiko bidean. Horren adibidetzat jarri zuten, oroimen ekitaldia ospatu eta urteotan auzolanean eraberritzen aritu diren Aginagako Eliza Zaharra. “Eraikinean hutsune eta gorabeherak ikusi genituen eta berak ulertarazi zigun eraikinaren zauriak zirela horiek, eta hauek mantentzeak bere garrantzia zuela. Horregatik gaur egun ikusten dituzue bistaratuak marka horiek guztiak”. Garai bateko Aginagaren zati izan eta lankidetzan eraberrituriko eraikina nola geratu den “gustura partekatuko genuke berarekin” adierazi zuten, berrari esker ere gauzaturiko proiektua izan dela nabarmenduta.

Herria eta herritarrak, Tapiaren jai egitarauen oinarrian

Bere sortze lan hainbat teknin erakusketatxo antolatu zuten. Tapiarenak baitira, besteak beste, urte luzez ospaturiko San Praixkuetako egitarauko irudiak.

“Egun inguratzen duen espazio hau irudikatzen zuen bere begiradarekin eta pozarren oroitzen ditugu San Praixkuko egitarauetarako prestatu zituen irudi horiek”, oroitu zuten jaietako antolatzailleek. Irudiok eta garai bateko egitarauak ikusgai jarri zituzten. Aginagaren historiaren pasarte garrantzitsuak. “Herria eta herritarrak zituen oinarri”.



Murala

Izatez abenduaren 26ko oroimen ekitaldiaren amaieran jarri nahi izan zioten, baina ezin izan zuten. Aginaga eta aginagarrak irudikatzen zituen Tapiaren

San Praixkuetako egitarau baten irudi izan zen bere margolanotako bat muralean bilakatu eta urte amaieran kokatu zuten, aurrez jada txukundua zuten Eliza Zaharrean azpial-

deko horman, Alejandroren omenezko eskulturaren parean hain zuzen, Aginagako Jai Batzordeak helarazitako goiko irudian ikus dezaketen moduan.



Azaroko Udazkeneko Azokan antolatzerik izan ez zen haurren parkea ireki zuten Hurbilagokoek abenduaren 21ean frontoian.



Prebentzio neurrien artean, Dj Mendik girotuta San Tomas eguna ospatu zuten Santuenean auzo elkarteak sukaldaturiko txistorra jan ederrarekin.



Ez zuten urte amaiera erraza izan ikastolan. Talde txikiagoetan antolatuta halere, kantuan egin nahi izan zieten harrera negu hasierako oporrei.



Ikastolako HH-koek ere kantuan egin zieten harrera oporrei. Olentzeroren parean bildu ziren abenduaren 21ean.



Zumarte Musika Eskolako abesbatzek borobildu zituzten urte amaierarako antolatutak zituzten ospakizunak, Salbatore Elizan eskaini zuten gabonetako kontzertuarekin.



Kantuz girotu zuten Aginagako eskolako kideek, oporretan murgiltzear ziren abenduaren 23an. Irakasle eta ikasle trikitilariek gidatu zuten kalejira.



Abenduaren 23an, etxe atari anitzetan gelditu ziren Aginagako eskolako ikasle eta irakasleak kantari. Etxean zirenek eskuzabal hartu zituzten.



Harrera beroa egin zioten Olentzerori frontoira heltzean. Bidelagunik ez zuen falta Kalezarren abiatuturiko kalejiran.



Olentzero Aitzaga parean gurditik jaisterako zain zuen Dema plazan Mari Domingi. Elkarrekin egin zituzten kalejirako azken metroak.



Ezingo zuen gure artera heldu haiei esker izan ez balitz. Galtzagorriek argitu zioten bidea abenduaren 24an Olentzerori.



Bidean zehar, hainbat uneetan gelditu zen Olentzero, ondoan zituenak agurtzeko.



"Etxean atera ezinik geratu direnak oso gogoan ditugu", adierazi zuten Mari Domingi eta Olentzerok abenduaren 24ko kalejira amaierako ekitaldian, Dema plazan. "Azkar sendatzea nahi genuke, kalera atera eta elkar ikustea", desio nahi izan zieten.

Urtarrilaren 5ean itxiko da Haur Parkea



Lau eguneguz kiroldegian denetarikoko jolas eta jokoez gozatzeko aukera izan dute txikienek: puzgarriak, jolas-dinamikoak, logika erabiltzeko jolasak... Pandemiaren egoera ikusita, babes-neurri zorrotzak bete behar izan dituzte, baina 2 eta 12 urte bitarteko haurrek gozatu ederra hartu dute.

Urtarrilaren 22an, “Bidaide” antzezlanaren SuteGIN

Udalbiltzaren “Geuretik sortuak” izeneko beka deialdiaren baitan Metrokoadroka Sormen Laborategiak ondu duen “Bidaide” antzezlanaren ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 22an 18:00etan SuteGin auditorioan. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira usurbil-kultura.eus plataforman bidez.

Idoia Beratarbide eta Iraia Eliasek zuzenduriko emanaldia “modu bisual, poetiko eta umoretsuan aldiro modu ezberdinean gauzatuko den teatro-ekintza da”. Bi zuzendariez gain, Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi eta Idoia Hernandez “Hatxe” ariko dira aktore lanetan. “Herrietako erraldoien iruditeriatik modu poetikoan abiatuta”, sortzaileen esane-



Idoia Beratarbide eta Iraia Eliasek zuzenduriko emanaldia ikusi ahal izango dugu SuteGin.

tan, “handia eta txikia izatearen arteko aldeaz, herrietako

kulturgileen ikusezintasun hautazkoaz edo ez hautazkoaz, kul-

tura bizitzeko moduez mintzo da ‘Bidaide’ antzezlanaren”.

Memoria historikoa berreskuratzeko beste hiru urterako elkarlana adostu dute

Memoria historikoa berreskuratzeko duela urte eta erdi abiarazitako egitasmoa nabarmen finkatzen doala agerian uzten duen albista honakoa. Sostengua ematen jarraitzeko beste hiru urterako lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten abenduaren 17an Potxoenean, Usurbil 1936 elkarteak eta Usurbilgo Udalak.

Hitzarmen honen testuinguruan, elkarteari lokal bat utzi eta ia 100.000 euroko ekarpena egingo dio Udalak egitasmo honi; 36.000 euro 2021ean, 30.000 eurten eta beste 30.000 euro 2023an. “Diru kopuru esanguratsua”, Agur-tzane Solaberrieta alkateak sinatze ekitaldian zioenez. Sarritan obrekin lotu arren, herri inbertsioak haratago doazen adibidea da honakoa udal gobernu talde-



Elkarteari lokal bat utzi eta ia 100.000 euroko ekarpena egingo du.

USURBILGO UDALA

“Lurpean utzi nahi izan duten egia hori azaleratzea dagokigu ahanzturara kondena ez dadin”

ren esanetan. Kasu honetan, “etorkizunari begirakoa, ga-

rrantzitsua delako aurrez gertatu denaren egia ezagutzeko eta berriro ez gertatzeko bermeak jarri ahal izateko. Lurpean utzi nahi izan duten egia hori azaleratzea dagokigu ahanzturara kondena ez dadin. Hori da ondorengo belaunaldiei egin diezaiekegun aitortza eta

omenaldi nagusia”.

Herritarren laguntza beharko da

Usurbil 1936 elkarteak pozik eta eskertuta agertu da Udalak abian duten egitasmoari emandako laguntzagatik. Aipatu herri bilgunetik berri eman zuten, lehen fasearen, informazio bilketaren ostean, bigarrenari ekingo diote datorren urtean. Gudalekuak berreskuratzeko auzolanari ekin nahi diote. Horretarako noski belaunaldi zein ogibide anitzetako herritarren laguntza beharko dute. Orain artekoarekin alderatuta “are zabalagoa den bolondres sarea”. Teknikari talde batek gidatuko du prozesua, Usurbil 1936-tik berri eman dutenez.

Interesdunek usurbil1936@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Aurrera begirako lan ildoak

Baina ez da aurrera begira Usurbilgo memoria historikoa berreskuratzeko eskuartean duten lan ildo bakarra izango. Memoria guneak berreskuratu nahi dituzte, “fusilatutako pertsonen oroimena berreskuratzeko”. Eta berreskuratze gune horietan

ekitaldiak egin asmo dituzte. Ikertzen segi nahi dute baita, datuak eta istorioak biltzen. Eta memoria historikoari lotutako herri errelatoa ere eraiki nahi dute; gerra aurretik herri honek zer nolako testuinguru sozioekonomikoa zuen, gerrak bizimodua

nola aldarazi zuen... Jasotakoa eta proiektu honen garapenaren nondik norakoak, egindako lanketa datorren urtean martxan jarri nahi duten webgune batean zintzilikatuko dute. Usurbilgo memoria historikoaren erakuslehoia izango da.

Amaitzeko, erakusketa

Lankidetzaz hitzarmen hau amaitzerako, egindako lan guztia islatu eta ahalik eta “interaktibo eta didaktikoa” izango den erakusketa batean bildu nahi luke Usurbil 1936 elkarteak. Argitalpen batean ere bai.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

ÇYPGAYQLUQPRWYY
 PPEQZ ZPAWIPTUWT WWIQKUPPSWPI
 PWPEWYZ YQPDWYDAWYZU WYDEÇIPTYUPW
 PYETÇWA OWWRÇPDUPYAK ZUÇYWRÇYEKWIÇPNPY
 WPBÇYEZÇPALYYA EQYMPPAN DÇQÇITQYUTÇYQ
 GÇPALUWR MAYWITAPWÇSWÇPLUNYWPZ EPWPTÇA
 HPPERWYIOÇPTWZAQZ WPHITWZ EGQWIN DWLIGYU
 QETÇPA TYXIÇYWMEWYLEÇYTA EYPRI BWATQ
 QYPGEÇYLYPAN SWWARTPLU ZQAIÇYPGWYUP.
 PGÇAUWR EÇYPUWRÇYPIA
 EÇYPGIÇYPN DÇUYP

Gaur inspiratuta jaiki da Hur. Pijama erantzi ere egin gabe, mikroa hartu eta kantari hasi da maiteminduak bezala, baina ez da ongi entzuten, bozgorailuak hots gogaikarriak egiten dituelako. Ezaba itzazu Q, W, P, Ç eta Y guztiak eta jakingo duzu zer ari den abesten.




Mezu gordea

Eta zein da abesti hori kantatzen zuen taldearen izena? Ez badakizu, jarri iruditxo bakoitzari dagokion hizkia ondoko biribilean eta asmatuko duzu. Ondoren, marraz ezazu atera zaizun hori, zure koadernorik maiteenean.




ALFABETOA



Itzala

Hona hemen Garazi, oreka galdu eta egundoko muturrekoa hartu baino lehen. Aurki ezazu bere itzal zuzena.





Margotu

Hemen ikusten dituzun igel hauek munduko igelik koloretsuenak dira, baina zerorrek margotu beharko dituzu. Erabili kolore gorria, urdina, berdea, marroia, horia, beltza eta morea.

Pareak bai!

Konturatu bazara, igel guztiek badute bikotea, hiruk izan ezik. Hiru horietatik bik ez dute parerik, eta hirugarrena hiru aldiz ageri da.

Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



ARBENDOLA



APATXAK



BARRENGORRIAK

ASKA



ERKAINA

IGITAIA




JOAREA

JAREGIN



Sudokua

Gauza handiak egin genituen 2021ean, eta are handiagoak egingo ditugu AURTEN. Bete itzazu hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiez (A, U, R, T, E eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zazpikoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zazpi dira guztira.



Osasun zerbitzu duinaren alde mobilizatuak anbulatorio atarian

Osakidetzan ordezkari-tza duten SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek EAE osoko anbulatorioetan mobilizazioak deitu zituzten abenduaren 22an. Baita beraz Usurbilgoan ere. Herritar talde batek protestarekin bat egin eta osasun-etxe atarian mobilizatu zen, osasun zerbitzu duina jasotzea exijitzeko.



Sindikatuak elkarretaratzeak deitu zituzten abenduaren 22an, osasun etxeen atarietan.

Egoera jasanezina salatzen, olatu berriari aurre egiteko antolaketa eta plangintza eza salatu eta benetako neurriak berehala hartzea exijitzeko egin ziren elkarretaratzeak. Eskae-ron bueltan; “aurrekontua hantitzea EBren parera iritsi arte (BPGaren %7); plantillak berehala indartzea eta giza baliabide nahikoak ematea kategoriaz guztietan, lanpostu berriak sortuz (1.000 plaza gehiago behar dira); aldi baterako milaka langileak finkatzea eta gehiegizko aldi baterako kontratazioarekin amaitzea; lan-kargak arrazionalizatzea eta absentzia guztiak lehen egunetik ordezkatzeta. Azken batean, Lehen Mailako Arreta lehenesten eta indartzen duen estrategia bat behar da”, ELA sindikatutik ohartarazi dutenez. Osakidetzako zerbitzu eta langileria,

ELA SINDIKATUA

“Lehen mailako arreta lehenesten eta indartzen duen estrategia bat behar da”

“nekatua eta baliabiderik gabedugu. Kutsatzen maila altuak eta azken asistentzia-murrizketek (kontsultak etetea, proba diagnostikoak, telefono bidezko arretari eustea, eta abar) hori erakusten dute: plantillak %60 inguruko behin-behinekotasun-tasa du; urrian indartze-kontratuak amaitu ziren; arakatazailen kopurua erdira jaitsi da; LMko erizaintza txertaketa-taldeei aurre egiteko mobilizatzen ari dira txertaketa gune nagusiak kendu ondoren;

profesionalen agendak gainezka daude; bajak, oporrak eta bestelako absentziak ez dira ordeztzen; herritarrei telefono bidezko arreta emateak, Osasun Sailaren informazio eta koordinazio faltarekin batera, egunero telefono lineak eta Pazientearen Arretarako mostradoreak gainezka uzten ditu; PACen arreta-ordutegiak ixteak edo murrizteak, eta abar luze batek, profesional askoren pazientziarekin amaitu du, eta Osakidetzatik alde egitea erabaki dute askok, beste aukera profesional batzuen bila. Gizartea ere nekatuta dago, izan ere, presentzialtasunik eza ezartzen da, eta horrek bereziki kalte egiten die kolektibo ahulenei eta teknologiarako sarbide txikiagoa dutenei”.

Osasun sistema publikoaren alde

“Pandemiarekiko politika publikoak berehala zuzendu beharrik daude”, gaineratzen du LAB sindikatuak. Neurriok berehala hartzea eskatzen du; batetik, Covid-19 ziurtagiria bertan behera uztea, konfinatutako seme-alaben langileentzako lan baimena ezartzea, kutsatzeak murrizteko neurri eraginkorrak hartzea, osasun eta zaintza sistema publikoa indartzea, pandemiak langilerian eragindako ondorio ekonomikoei aurre egitea.

ELA-ren esanetan “egoera kezagarria izan arren, “Eusko Jaurlaritzak ez du urratsik egin aipatutako arazo larriak konpontzeko. 2022rako aurrekontu berri duen Aurrekontuen Lege Proiektuak osasun arloko inbertsio bat aurreikusten du, 2021ean benetan gastatutakoa baino 16 milioi euro gutxiago gastatzea ekarriko duena”.

Horregatik dio LAB sindikatuak “governuen kudeaketa negargarriaren aurrean, langileok aurrera urrats bat emateko unea da. Covid-19 ziurtagiriaren inguruko polarizazio interesatua albo batera utzi eta osasun nahiz zaintza sistema publikoaren alde borroka egiteko unea da”.

Baliabideak indartzeko alkatearen gutuna Osasun Sailari

100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia ia 3.000 kasukoa izatera heldu ginen iragan astean. Covid-19 agerraldi berrien inoizko gorakada handienaren eta orohar indarrean diren neurri murriztaileen harira gutuna helarazi zion Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari. “Datuok egoeraren

larritasuna erakusten dute eta agerian jartzen dute kasuen jarraipen eza”, zioen gutun horretan Usurbilgo alkateak. “Osakidetzako lehen arreta gainezka dago eta gure herritarrek inbertsio falta horren ondorioak egunero pairatzen dituzte”, salatzen du alkatearen gutunak.

“Egoera honi irtenbidea eman behar zaio urgentziaz”. Horregatik indarrean diren

murrizketak berehala eten eta baliabideak indartzea eskatzen dio alkateak Osasun Sailari: lehenengo arreta zerbitzua indartzea eta aurrez aurreko kontsultak berreskuratzea; langile gehiago kontratatzea, tartean aztarnari gehiago, eta herritarrek astean behin test azkarrak doan egin ahal izatea, edota laborategiko zerbitzua indartzea frogan emaitzen jakinarazpena azkartzeko.

Estigma sozialaren arriskua

Kezka agertzen du era berean Jaurlaritzak hartutako neurri murriztaileekin, tartean Covid-19 ziurtagiriak “sor dezakeen estigma sozialarekin”, baita gainerako arauekin ere, “berriro ere Udalen gain jartzen du Eusko Jaurlaritzak erabakitako neurriak betetzearen ardura, inolako baliabide edota laguntzarik eskaini gabe”.

Gorabeherak kultur agendan eta Oiaro kiroldegian

Eusko Jaurlaritzak abenduaren 29an indarrean jarritako dekretu berriak eta azken asteotan izan den kasu berrien "uholdeak" herriko kultur agenda eta Kiroldegiko funtzionamendua baldintzatu dute.

Oiardon bi aldaketa txertatu ditu Usurbilgo Udalak. "Bate-tik, hitzordu bidezko sistema berreskuratzea erabaki dute, edukiera kontrolpean izateko modu bakarra delakoan". Online eskatu beharko da berriz hitzordua. "Oraingo honetan, ordea, aldaketa bat izango da: igerilekuan zein gimnasioan egunean bina txanda hartzeko aukera emango dute. Horrez gain, dekretuak hala aginduta, aldagelen edukiera %50era jaitsiko da".

Urtezaharreko ekitaldiak bertan behera

Bestalde, asteotarako iragarriak zeuden ekintza guztiak ezin izan dira ospatu. Urtea herri merkataritza eta ostalaritzaren alde korrika agurtzeko Hurbi-lagok antolatua zuen San Silbestre Lasterketa atsekabe handiz baina bertan behera uztea



Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Kuikui" ikuskizuna aurreikusi moduan ospatu ahal izan zen. Udalak berak azarotik hartua zuelako udal ekipamendu barrualdeetako edukiera %60ra murrizteko erabakia.

KIROLDEGIKO ALDAGELAK

"Dekretuak hala aginduta, aldagelen edukiera %50era jaitsiko da"

erabaki zuten osasun krisialdia herrian izaten ari zen eragina kontuan izan eta prebentzio neurri gisara, jende pilaketa saiheste aldera. Urteari frontoian Dj gauarekin ongi etorria ematea aurreikusia zegoen baita. Emanaldia goizaldeko 1:00ean hastekoa zen frontoian, baina bezperatan Eusko Jaurlaritzak ekintza guztiak

ordu horretarako amaitzea agindu zuen eta Udalak hitzordua bertan behera utzi behar izan zuen.

Jaurlaritzaren dekretuak barrualdeko ekintzen edukiera %60ra murriztea agindu zuen abenduaren 29tik aurrera. Egun horretarako NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Kuikui" ikuskizun berria antolatua zuten Oiaro Kiroldegian. Ekitaldi hau aurreikusi moduan ospatu ahal izan zen, Udalak berak azarotik hartua zuelako udal ekipamendu barrualdeetako edukiera %60ra murrizteko erabakia.

Hildakoen omenaldia aurrerago egingo da

Abenduaren 18rako iragarria zuen Usurbilgo Udalak Covid-19ak hildakoen aldeko omenaldia, haien oroimen gune irakunkorren bilakatuko den Bizkarreko parkean. Baina atzeratzea erabaki zuten. Aurrerago jakinaraziko dute data berria.

Covid-19 ziurtagiria eskuratzeko

laguntza zerbitzua

Abenduan jubilatuta elkarrekin egin zuten moduan, orain KzGunea da Covid-19 ziurtagiria eskuratzeko laguntza zerbitzua eskaintzen ari dena. Urtarrilean zehar 18:00-20:00 artean izango da zabalik, laguntza zerbitzua 18:00-20:00 artean eskainiko da.

Kolektibo gehiagok txertatzeko aukera

Bost urtetik gorako haurrak txertatzeko aukera zabaldu du Eusko Jaurlaritzak. 50 urtetik gorako herritarrek ere hirugarren dosia jartzeko hitzordua eska dezakete osakidetza.eus web orrian.

"Autogestioan" oinarrituko da kasu berrien kudeaketa

Sintomak izanez gero...

- Isolatu.
- Proba diagnostikorako hitzordua online eskatu formulario bidez edo anbulatoriora deituta.
- Azken 48 orduetako edo sintomak sentitzen hasi aurreko 48 orduetan izandako kontaktu zuzenen zerrenda prestatu.

Positiboa izanez gero...

- SMS bidez jasoko da proba diagnostikoaren emaitzak eta

egin beharrekoari buruzko xehetasunak.

- Farmaziako testean positiboa izanez gero Osakidetza jakinarazi, proba hau PCR bidez baieztatzeko.
- Isolatu 10 egunez proba egunetik edo sintomak sentitzen hasiz geroztik zenbatzen hasita.
- Sintomak okertuz gero edo arnasa hartzeko zailtasunak izanez gero anbulatoriora deitu.

■ Kontaktuzuzenak identifikatu eta haiei haientzat euskadi.eus atarian dagoen inprimakian alta ematea eskatu.

Kontaktuzuzena izanez gero...

- Proba diagnostikoa egin.
- euskadi.eus atariko formularioa bete.
- Txertoaren dosi guztiak jarriak dituztenek edo azken 90-180 egunetan covid19a izan dutenek ez dute isolatu beharrik izango probaren emaitza

negatiboa izanez gero, baina prebentzio neurriak zorrotz eta balizko sintomen zaintza egin. Txertatu gabe edo bi dosiak hartu gabe dituztenek, nahiz eta lehen proba diagnostikoan emaitza negatiboa izan, handik 8 egunera bigarren proba bat egin beharko dute eta tarte horretan isolatuak egon beharko dira.

Informazio gehiagorako:

euskadi.eus

Zubietak aurkeztu du etorkizunerako bide-orria

2020ko udazkenean zehar “Guk Zubietan zer?” ize-neko parte hartze prozesua bideratu zuten Zubietako Herri Batzarrak, Usurbilgo Udalak, Donostiakoak. Saio haietan, Zubietako etorkizuna marrazteko aukera izan zuten bizilagunek. Prozesuak emandakoa iragan hilabeteen aurkeztu zuten zubietarren aurrean, Kaxkapen.



Parte hartze prozesuak emandakoa iragan hilabeteen aurkeztu zuten.

Ekarpenak gero, Usurbilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) txertatu asmo dituzte. “Hurrengo urratsa asmoak HAPO-an jaso eta hau dena bateragarri egitea” litzateke Usurbilgo alkateak adierazi zuenez. Donostiako Udalak bere plangintza berrikusteko prozesua hasi berri duela jakinarazi zuten Kaxkapeneko ekitaldian eta etorkizunean, “Guk Zubietan zer?” ekimenak emandakoa HAPO-n txertatu eta dokumentu hau behin betiko onartu aurretik “Donostiako Udalarekin adostu beharko da konpatibilizazio dokumentua”.

Zubieta bizi eta euskalduna

Hainbat egitasmo, erronka marraztu zituzten zubietarrek “Guk Zubietan zer?” parte hartze prozesuan zehar. Batetik,

“GUK ZUBIETAN ZER?”

“Zubieta gune bizi, euskalduna eta kolektibitatean oinarrituriko herri gisa ikusten dute”

ingurumenarekin duten harremanarekin erdigunean kokatzea; tartean baso eta ibaiekin, eta hauen ezagutza eta zaintza sustatzea. Ibaiei leku egiteaz jardun zuten, baserriak mantentzeaz eta hauek bizileku ezberdinetan zatitzeko aukeraz.

Bizikleta erabiltzaileak eta oinezkoak lehenetsi eta garraio zerbitzu publikoa dituen mugikortasun aktiboa bultzatzea ere nahi dute zubietarrek. Eskuhartze beharra ikusten dute Santuenea eta Zubieta lotzen duen bidean, eragiten duen

arriskuagatik. Lotura zuzenago eta erosoagoa nahi dute Usurbilgo Kaxkoarekin, tren geltokiarekin loturak hobetzea. Urbil ondoko tren geltokia berreskuratzeko aukera ere planteatu dute.

Zubieta gune bizi, euskalduna, kolektibitatean oinarrituriko herri gisa ikusten dute. Tokiko garapena sustatzea planteatu dute (oinarrituriko produktuen denda bat sortzea, zubietarren bilgune izaera izango duen kultur ekuipamendua eraikitzea) eta trantsizio energetikoaren erronkari heltzea. Hirigintzari dagokionez, Kaxkoa ahal dela urbanizatzen ez den lur eremua izatea eta lur urbanizagarriak nekazal lur izatera itzultzea; baita etxebizitza beharrik zubietarren errealitatera egokitzea...



Erregeen gutunak biltzeko postontzia ipini dute Sutegin

Urtarrilaren 5erako hitzordua prestatzen ari da Zior-tza Gazte Elkarteak. Goiz parterako iragarria zegoen erregeen postariaren bisita bertan behera utzi dute. Horren ordez, iaz bezala, postontzia jarri dute Sutegin. Eta arratsaldean, aldaketak izango dira erregeen kabalkadan. Amaierako ekitaldirik ez da ospatuko frontoian.

Sagarraren sukaldeko erabilera

Gai hau hizpide hartuta, tailerra antolatuta zuten Alkartasuna Kooperatibak abenduaren 15ean Aitzaga Elkarteak, Mugaritz jatetxeko ikerketa arduradun ohi eta sukaldari Dani Lasarekin.



Dani Lasa sukaldariak gidatu zuten tailerra.

Zapategiko eremua garatzeko hirigintza hitzarmena, behin betiko onartua

Behin betiko eta aho batez onartu zuten udal ordezkariak urte amaierako ezohiko osoko bilkuran, “Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntu-ala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Balfer Norte S.L. eta Usurbilgo Udalaren artean

izenpetu beharreko hirigintza hitzarmena”. Era berean udalbatzak aho batez onartu zuten “alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetzeko, hitzarmena behin betiko onartutzat jo osten”.

Gogoan izan, hitzarmen hau hasieraz onartu zuten iraila amaieran. Finkatua

zuten epearen baitan gerora inork ez du alegaziorik aurkeztu eta honenbestez berriz udalbatzarrera bueltan etorri zen gaia, iragan abenduaren 23an. Zapategiko lur eremua garatzea ahalbidetuko du.

Bertan kokatuko da Gureak eta baita Balfer inbertsoreak erakarri ditzakeen lantegiak ere.



Irailan adostu zuten akordioa Udalak, Gureak-ek, Balferrek eta Michelinek.



AEK eta Topagunea

Auzia ez da izan ala ez izan. Nolako edo halako izan. Kontua ez da hori. Kontua ekitea da. Egitea. Egiten duguna gara. Izatea egitea da. Sei urte luze pasatu dira Lorea Agirrek 19. KORRIKAREN amaieran hitz gogoangarri haiek adierazi zituenetik. Kontua ahalduntzea zen; ekintza aldarrikatzea, alegia. Izan ere, azken urteotan maiz zabaldu da alde egotetik alde egitera jauzi egiteko deia ere; euskararen mugimenduan, nabarmen azpimarratu izan dugu harago joateko unea zela, eta dela.

KORRIKAREN azken aurreko edizioan ere, Klika egiteko gonbidapena luzatu genuen; hots, hautua egiteko, konpromisoak hartzeko gonbidapena. Eta 2018an ezagutu genuen euskal herritarrok mugiarazi gaituen ekimenik praktikoena: EUSKARALDIA. Ekintzan oinarritutako ariketa sozial erraldoi horrek nork bere hizkuntza-ohiturak aldatzeko proposamena egin eta rol bi eskaini zizkigun: *ahobizi eta belarriprest rola*. Batzuek euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen, eta besteok ezinbesteko konplize bihurtu ginen euskaraz aritzeko. Bigarren edizioan, gainera, entitateetara ere zabaldu zen ariketa eta ariguneak sortzeko proposamena zabaldu zen; hau da, euskaraz eroso aritzeko espazioak.

Hitza eta ekimena indartzeko urtea



“Korrika eta Euskaraldia ekimenen antolatzaileok argi dugu 2022a hitzaren eta ekintzaren urtea izango dela”. Argazkia, artxibokoa.

ALIZIA IRIBARREN, AEK

“KORRIKAREkin nahiz EUSKARALDIAREkin, berriz kalera ateratzeko garaia da”

Euskararen aldeko dinamika hedatzen eta indartzen ari zirela, ordea, pandemia agertu zen, eta, hondamendi soziala eragiteaz gain, euskararen biziberritze-dinamika gogor kolpatu zuen. Pandemiak erakutsi digu, ikusarazi digu, gal dezakegula orain arte irabazitakoa, zaindu eta sustatu ezean. Horregatik, azken urteetako irabazia galbidan ikusi nahi ez badugu, gure hizkuntzaren iraupenak eta garapenak bultzada berriak beharko dituzte. Eta horretarako aukera bikaina eskainiko digu datorren urteak, Korrikan parte hartuta, Euskaraldian *ahobizi edo belarriprest* modura arituta, eta ekimenok antolatzeko batzordeetan esku hartuta.

2022. urtean, ekimen erraldoi

bi horien edizio berriak ezagutuko ditugu. Abian da jada 22. Korrikan kanpaina, eta, udaberrian, —martxoaren 31tik, apirilaren 10era— eskuz esku joango da lekukoa Amurriotik Donostiaraino.

Bestalde, 3. Euskaraldia ere aurkeztu da: azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da, eta, aurreko bi edizioetan abian jarritako dinamika sendotzeaz gain, herritar, entitate eta herri gehiagorengana/gehiagotara iristeko helburua ere izango du.

Beraz, 2022a euskararen urtea izan dadin lortu behar dugu, aro berri baterako abiapuntua jarrita. **HITZEKIN** dio 22. KORRIKAREN leloak, eta **HITZEZ EKITEKO GARAIA** 3. Euskaraldiarenak. Bi ekimenen antolatzaileok argi dugu 2022a hitzaren eta ekintzaren urtea izango dela.

Gainera, bi ekimenak, biak ala biak, Euskal Herri osora zabaltzen dira. Guk Baionatik Tuterara eta Muskizetik Santa Grazira zabaldu nahi dugu

euskararen aldeko dinamika, euskararen ezagutza unibertsaliza dadin, erabilera lau haizeetara heda dadin eta euskaraz eroso aritzeko guneak ugaltzeko.

Euskararen biziberritze-bide honetan, jakina, guztion ekarpena behar-beharrezkoa izango da: herritarrona, gizarte-mugimendua, erakundeena eta era guztietako entitateena. Soilik elkarlanean eta denon bultzadaz lortuko dugu euskaraz aurrera egitea, guztioz baitugu egin, eragin eta eginarazteko aukera.

Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, eta hitza beharrezkoa da ohiturak aldatzeko. Ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea, eta, inguruan eragiteko, ekintza nahitaezkoa dugu. Euskal Herri osoko euskaldunak, beraz, hitzekin ekitera animatzen zaituztegu, Korrika eta Euskaraldia batzordeetan parte hartuz, hizkuntza-ohiturak aldatzeko dinamika sustatzera, euskarazko guneak sortuz, eta euskara erabil dadin baldintzak bermatzera zeuen entitateetan edo ingurunean.

KORRIKAREkin nahiz EUSKARALDIAREkin, berriz kalera ateratzeko garaia da.

Alizia Iribarren AEKko koordinatzaile nagusia eta Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko presidentea

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Atari
Pari 2022
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA (22:00tan itxita)

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Irisasi BTT “Hotzak Akabatzen” probarako izen-ematea zabalik da

Iaz bertan behera utzi behar izan zuten osasun krisialdiagatik. Urtebete beranduago bai, hamargarren edizioa ospatzeko moduan izango dira Irisasi BTT taldekoak. “Hotzak akabatzen” mendi bizikleta gaineko hamargarren edizio borobila antolatzen ari dira urtarrileko azken igandearako, hilaren 30erako.



Izen-ematea azaroan zabaldu zuten rockthesport.com atarian.

500 lagunentzako tokia

Izen-ematea azaroan zabaldu zuten rockthesport.com atarian, hilabete haren amaierarako jada 300 bat partaideek inskripzioa bideratua zuten. 500 lagunentzako lekua egongo da. 16 urtetik gorakoak

apuntatu ahaliko dira, 14koek ere bai “une oro heldu ardurdun bat badu ondoan”. Goizeko 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak frontoi ingurutik.

Ohi bezala, Andatzari itzulia emateko aukera izango dute bizikleta gainean. Antolakuntzak gogorarazten duenez, ez da martxa lehiakorra izango.

Urtarrilaren 10ean, odol ematea

Usurbilgo odol emaleen elkarteak deituta, odola emateko 2022ko lehen hitzordua urtarrilaren 10ean izango da, negu hasiera honetako ospakizunak tarteko, hilabete honetako lehen astelehenean ez, bigarrean baizik.

Ordutegia

Pandemian garenetik, ordutegia zabaldua dute; 16:30-20:10 artean izaten da odol ematea, eta ez ambulatorioan, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan baizik. Odola lehen aldiz ematera doanak aurrez 943 007 884 telefono zenbakira deitu behar du. Aurrez odola eman izan dutenei hitzordua finkatzen zaie.

Plazan Bazan, 14/15 orrialdeetako soluzioak

CYPGAYGUQPRWYY
PPEQZ ZPAWIPUWNT WNIQKUPPSNPI
PWPEWYZ YQPDWYDANYZU WYDECIPTYUPW
PYETQNA ONWRCPDUPYAK ZUCYWRQYKVICPNPY
WPBQYEZQALYIA EGYMPPAN DQGGITQYUUCYQ
GQPALWPR MAYNITAPWQWNGPUNYWPZ EPWPTCA
HPPERWYIOQTPWZAGZ WPHITWZ EGGWIN DNUGUY
GETQPA TYXICYMMEWYLECYTA EYPRI BNATQ
QYVGEQYLYPAN SWNARTPU ZGAIQYQWYUR
PQCALUPR EGYRUCYPIA
EYQYBICYPN DQYVP

Gaur inspiratuta jaiki da Hur. Pijama erantzi ere egin gabe, mikroa hartu eta kantari hasi da. Maiteminduak bezala, baina ez da ongi entzuten, bozgorrialuak hotz gogaikarriak egiten dituelako. Ezaba itzazu Q, W, P, Ç eta Y guztiak eta jakingo duzu zer ari den abesten.

Mezu gordea

Eta zein da abesti hori kantatzen zuen taldearen izena? Ez badakizu, jarri iruditxo bakoitzari dogoien hizkia ondoko biribilean eta asmatuko duzu. Ondoren, martx ezazu atera zaizun hori, zure koadernorik maiteanean.

D E A B R U A K
T E I L A T U E T A N
ALFABETOA
A B C D E F G H I
J K L M N O P Q R
S T U V W X Y Z

Itzala

Hona hemen Garazi, oreka galdu eta egundoko muturreko hartu baino lehen. Aurki ezazu bere itzal zuzena.

Margotu

Hemen ikusten dituzun igelik koloretzuenak dira, baina zerorrek margotu beharko dituzu. Erabili kolore gorria, urdina, berdea, marroia, horia, beltza eta morea.

Pareak bai!

Konturatu bazara, igel guztiak badute bikotea, hiruk izan ezik. Hiru horietatik bik ez dute parearik, eta hirugarrena hiru aldiz ageri da.

Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dogoien irudia. Kantuan operi dena ez dela behar bada zuk ezogutzen duzuna.

ARBENDOLA APATXAK
BARRENGORRIAK ASKA
ERKAINA IGITAI
JOAREA JAREGIN

Sudokua

Gauza handiak egin genituen 2021ean, eta are handiagoak egingo ditugu AURTEN. Bete itzazu hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiez (A, U, R, T, E eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A	U	N	E	T	R
E	T	R	N	U	A
U	R	A	T	E	N
R	A	T	U	N	E
N	E	U	R	A	T

ZazpiKoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Zazpi dira guztira.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Alokairuan

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da

mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra dauka. 675189500.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentsako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar da Artzabalen, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa.

Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu, txandaka, goiz eta arratsaldean. Hilabetean 15 ordu. Euskalduna izatea. 666 925 378 (Esti).

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabal. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz.

622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zeilaian. Aurkitu baduzu deitu 685725681 telefono zenbakira.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

Ingeleseko, frantseseko eta latineko klaseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

**Zorionak Xune!**

Urtarrilaren 8an 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familia guztiaren, eta bereziki, Haizearen partez. Ondo pasa! A, eta prestatu belarriak!

Heriotzak**Milagros****Balerdi****Segurola**

Abenduaren 31n hil zen,
82 urterekin.

**Heriotzak****Kontsuelo****Razkin****Reparaz**

Abenduaren 27an hil zen,
97 urterekin.

**Heriotzak****Soledad****Gonzalez****Garcia**

Abenduaren 30ean hil zen,
81 urterekin.

**Heriotzak****Goyo****Calvo****Castro**

Abenduaren 24an hil zen,
47 urterekin.

**Heriotzak****Maria Luis****Pagola****Garin**

Abenduaren 29an hil zen,
89 urterekin.

**Heriotzak****Julian****Picabea****Aizpurua**

Abenduaren 18an hil zen,
89 urterekin.

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 06 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 07 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 08 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Osteguna 13 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 14 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda

urtarrila

05 asteazkena

- **Gabonetako Parkea Oiardo kirolegian** 11:00-13:00, Oiardo Kirolegian. Nori zuzendua: 2-12 urte.
- **Erregeen kabalgata** 17:00etan abiatuko da Urdaigatik eta 19:00ak aldera iritsiko da kaxkora. Antolatzailea: Ziortza.

08 larunbata

- **Sarek deitutako manifestazioa Usurbilen.** 17:00etan abiatuko da frontoi ingurutik.

09 igandea

- **'Glup' euskarazko filma** 17:00etan Sutegin. Antolatzaileak: Ziortza Gazte Elkarte eta Udala.

Igande honetan Sutegin, 'Glup' euskarazko filma

Erosi, erabili eta bota; hori da ohi-koena gaur egungo bizimoduan. Dendak hustu egiten dira eta zabortegeiak bete. Film honetako istorioa zabortegei batean gertatzen da, eta Glup eta Alize ditu protagonista nagusi.

Zabortege hori Komun jaun maltzurak gobernatzeko du eta bere eskuetan jausen den edozer gauza errausketa-labera bidaltzen du. Glup gabardina zaharrak eta bere zabor taldeak bakarrik egiten diote aurre haren tiraniari. Baina lagun berri bat egingo dute: Alize, zabortegeian ustekabean jausi eta etxera itzultzen ez dakien neskatua. Bere irratia maitea galdu du zabortegeian eta hura gabe ezin da etxera itzuli.



Glup eta Alize dira pelikulako protagonista nagusiak.

Glup filma Sutegin

- Urtarrilak 9 igandea, 17:00etan.
- Sarrera: 3 euro aurrez usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzaileak: Udala, Ziortza G.E.

Gabonetako Parkea

Urtarrilak 2-5

Urtarrilaren 2tik 5era Oiardo kirolegian.
 ■ Ordutegia: Goizez, 11:00-13:00. Arratsaldez 16:30-19:30. Urtarrilaren 5ean soilik goizez, 11:00-13:00 artean.
 Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Datozenak

Joxan Artze gogoan

Sortzaile usurbildarra hil zeneko laugarren urtemugan, arratsalde pasa antolatu du Usurbilgo Udalak urtarrilaren 15ean. Ekitaldiotarako izena aurrez bideratu beharko da usurbilkultura.eus plataforman:

- 18:00 Balea Zuria argitaletxeak Joxan Artzeren poemak bildu eta antologia osatu du. Lan honen aurkezpena Mikel Laboa plazan, euria bada Sutegin.
- 19:00 Oskarbi taldearen kontzertua Sutegin. "Ez Dok Amairuren ernamui-nak Artzeren idatzi asko musikatu ditu. Kantu horiekin zein euren ibilbideko eta azken diskoko sorkuntzekin osatuko dute emanaldia".

Desazkundeari buruzko hitzaldia Sutegin

Krisi ekosoziala da gure garaiko datu funtsezkoa. Goitik behera baldintzatu ditugu gure biografiak, komunitateak, jendartea, mundua. Honi buruz arituko da Joseba Azkarraga EHuko irakasle eta ikertzailea.

- Urtarrilak 27 osteguna, 18:30ean Sutegin.
- Sarrera: doan, baina tokia hartu behar da usurbilkultura.eus web orrian.
- Antolatzailea: Anerreka elkarte.

Errege kabalgata

Urtarrilak 5, asteazkena

Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Urdaigatik eta 19:00ak aldera iritsiko da Usurbilgo kaxkora. Kalejiran ibiliko dira. Amaieran ez da agerraldirik egingo frontoian.

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
 Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
 Fax: 943300045

Kima
 MASAJE LEKUA

• KIROL MASAJEA • MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

www.noaua.eus
 USURBILGO ATARIA



ASEGURU ARTEKARITZA ETA GESTORIA ZERBITZUA

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01 
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek, 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarriko bultzada izan zuen Noaia Kultur Elkartearen sorrerak.

Heria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugul!
25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzen automatikoki bazkideza arrunta izatera pasako da

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaia Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizirik diren herritarrei, aldirkarla astero posta arruntez jaso aukera.

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noaia.eus/bazkidetu



Telefonoz
943 360 321

Izena _____

Abizenak _____

Nortasun agiria _____

Helbidea _____

Herria _____

Posta kodea _____

Telefonoa _____

Posta elektronikoa _____

Kontu zenbakia (IBAN) _____

Bazkideztza mota Arrunta (40 €) <30 urte (25 €)

Jaiotze data _____

noaia.eus



Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Ataldu pol. ataldu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Gelloki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoenaroztzi.net jribargoen@aroztzi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Purlapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

Zuri Arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITUROIH LAN OROKORRAK · DUTZAKO HANPARAK
· KONFINATZAKO GREHIOAK · KOMUNENKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04



XORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigalak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39